

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAI.

1. Zertaz mintzo da idazki hau
2. Mintzagale baten arabera, zerk egui du Espainia?
3. Zezen lasterrak, zezen-guduad direa.

(II)

ZERK EGIN DU ESPAINIA?

1

Egun hautarik batez adixkide batekin solasean nindagon. Zer eta zertaz mintzo ginen xuxen baitezpada¹ erraiteko, ez nintek on.

Asko elhe eta erasia² bazerabilan gure gizonak, burn kaskoa beroak jo baitzuen; eta bertzalde berenaz³ ere ez baitio gantzak baino hanbat gehiago haztatzen⁴... zentzuak.

1 Bihotz ona bai; ahoko eztena ere xorrotxa; bainan gaineko algi hura arin, arin...

Eta gero zemahi errozun⁵, harek bethi bertze eskualdea har-tuko derautzu. Zoazi esker, joanen zautzu eskuin. Zu eskuin, bere-hala hura esker.

Halere lakhetgarri⁶ da holako batzuekin elhekan⁷ egoitea; lu-zegi liteke erraitea zertako.

Goazin laburtuz gurek xedera. Mintzo ginen beraz bertze asko isolasen artetik zezenet eta zezenkariez.

Erdi irriz, erdi zinez, hanxet gogoratu guziak erran ginituen elgari. Batek hau, bertzeak hura. Ez jauna, ba jauna. Azkenean gutik egin zuen, ez baingen osoki samurtu⁸.

Nere adixkidea zezen-gudu⁹ horien alde zen; eta ni dakizuen bezala, ez aide.

Hitz derautzuet ez zela ixilik egon gizona. Ez alafede¹⁰ eta ni ere.

Batek ala bertzeak gure erraitekoak oro erran ondoan, badi-kizue azkenean zer atheraldia atheratu zerauntan? Huna hitz¹¹: «Espainia zezen-giduek egina da... Ce sont les courses de taureaux qui ont fait l'Espagne».

Ez bakharrik eskuaraz eta frantsesetz, bainan zapta mintzaiez eman nintzazke hitz hoik, orok, orok irakur ditzaten eta har behin bethikotz ongi gogoan.

Zer ahopaldia¹¹! Hori aditzearekin bazterretik guri so¹² zauden batzuek irria ezin atxiki¹³ zuten.

Bizkitartean egia zuen bertzeak. Bai egia; berak uste baino egia go.

Eta horra zertako adixkide bezala, nahi dudan lagundu ahal (bezenbat egia handi horren hedatzen, eskerrak bihurtuko ahal derauzkidalakoan...).

derantzu = danzu; zautzu = zaiztu
derautzuet = danzuet;

(II) ADITZ IKASKUNTA -

- | | |
|---------------|----------------|
| 31. Ez nintek | 32. Bazerabian |
| 33. Nintzagke | 34. Ditzaten. |

31. IZAN - Conditionnel Présent.

Ni (izan) nintek	= je serais
Hi (izan) hainteke	= tu serais
Zu " zintezke	= vous seriez
Hura " liteke	= il serait
Gue " gitezke	= nous serions
Zuek " zinterzhete	= vous seriez
Heik " litezke	= ils seraient

32. ERABILI - Indicatif Imparfait.

Objet sing. Hura = le

Nik nerabilan	= je l'utilisais
Hiik herabilan	= tu l'utilisais
Zuk zinerabilan	= vous l'utilisiez
Harek zerabilan	= il l'utilisait
Guk ginerabilan	= nous l'utilisions
Zuek zinerabilaten	= vous l'utilisiez
Heiek zerabilaten	= ils l'utilisaient

Obj. plur. Heiek = les

nerabilizan, herabilizan, zinerabilizan
zerabilizan, ginerabilizan = etc. j'les utilisais etc.

UKAN - Conditionnel Futur - Q. P.

Nik ukhan nezake = je l'aurais	V. mintzagke : je les aurais
Hiik " lezake	mintzagke
Zuk " zinezake	" zintezake
Harek " lezake	" litzake
Guk " ginezake	" gitezake
Zuek " zinezakete	" zintezakete
Heiek " lezakete etc	" litzakete